

ERRONKAZ BETERIKO MUNDUA

Baziren behin 4 lagun: Noa, Maddi, Deiane eta Naia. 13 urte zituzten eta Bergaran bizi ziren. Esan genezake denei gauza berdinak gustatzen zitzaizkiela, eta janzteko modu berdina zutela. Laurak, Naia izan ezik. Noak eta Maddik, marraztea zuten gustuko, Deianek, futbola eta Naiak igeriketa. Noa, Maddi eta Deiane, arropa zabala erabiliz janzten ziren baina Naia aldiz, kanpai prakak, alkandorak eta jertse irekiak erabiliz janzten zen. Laurak oso ausartak ziren eta ez zuten beldurrik edozer gertatuta ere.

Dena Bergarako liburu azokaren barruan gertatu zen. Lau lagunak komiki bat begiratzen ari ziren eta bat-batean komikiaren barrura sartu ziren! Minutu baten ondoren, komikiaren barruan zeuden! Laurak harrituta zeuden gertatu zitzaiena sinistu ezinik. Beraien aurrean bidegurutze bat zegoen, bata, "erronken bidea" zuen izenburu eta besteak "uraren bidea". Orduan 4 lagunak "erronken bidea" jartzen zuenetik abiatu ziren. Bidean zehar gizon batekin egin zuten topo. Gizona, elegante jantzita zegoen. Traje beltz bat eta magoen kapela horietako bat zituen soinean.

- Aizue neskak, nora zoazte? -galdetu zien gizonak.
- Ba... - hasi zen Maddi esaten -Bergarako liburu azokan geunden komiki bat begiratzen eta bat-batean komikiaren barrura sartu gara.
- Haral! Zer gauza arraroa, ezta? -esan zuen gizonak.
- Bai, oso arraroa izan da, dena oso azkar gertatu baita -esan zuen Noak.
- Badakizu nola atera gaitezkeen komiki madarikatu honetatik?
- Bai, erronka batzuk gainditu beharko dituzue komiki hontatik ateratzeko. Baina kontuz! Ez badituzue erronka guztiak gainditzeko, komiki barruan geldituko zarete betirako. Begira niri, orain komikiko pertsonai bat naiz!
- Aizue! -esan zuen Deianek- honek beldur pixka bat ematen du, baina lortuko dugu ateratzea eta gure gurasoekin itzuliko gara!
- Hori da jarrera! -esan zuten beste hirurek.

Orduan, 4 lagunek bideari ekin zioten gizon hura atzean lagata.

- Agur! -esan zioten laurak.
- Agur! -erantzun zien gizonak.

Jada gizona agurtuta, beraien bidean jarraitu zuten lagunak. Bidea hasi zutenetik jada ordu batzuk igaro ziren eta gizonak gezurra esan zieneko susmoa hartzen hasita zeuden. Momentu horretan bertan, Naiak sobre bat ikusi zuen lurrean.

- Lagunak, begira! -esan zuen Naiak harrituta.
- Haral! Sobre bat da ireki ireki -esan zion Noak.

Orduan Naiak, sobrea ireki eta ahoz goraz irakurtzen hasi zen gutunean idatzita zegoena.

- Kaixo! -Naia irakurtzen hasi zen- hau izango da zuen lehenengo erronka. Noak eta Maddik mural bat marraztu beharko dute, komiki honi buruzkoa. Hor aurrean daukazue behar duzuen materiala.

Lagunak, aurrera begiratu eta harri baten gainean, pinturak eta pintzelak ikusi zituzten.

- Maddi -hasi zen Noa esaten- gu gara talde honetan ondoen marrazten dugunak. Lortuko dugu erronka hau gainditzea.
- Guk ahal dugu! -esan zuen Maddik.

Noa eta Maddi, materialaren bila joan ziren eta behar zuten materiala eskuetan jada, murala egiteko pareta liso baten bila hasi ziren. Ez ziren konturatu beraien aurrean harrizko pareta handi-handi bat zegoela.

- Begira Maddi, hor aurrean dagoen paretan marraztu dezakegu gure murala!
- Bai goazen! -erantzun zion Maddik.

Bi lagunak murala margotzen hasi ziren beraien irudimenari segika. Pare bat ordutan amaitu zuten, eta beste sobre bat erori zen zerutik, hauxe zegoen idatzita: zorionak Noa eta Maddi, zuen erronka gainditu duzue. Margotu berri duzuen murala komikiaren azken orrialdea izango da.

- Noa lortu dugu! -esan zuen Maddik pozik.
- Goazen aurrera, ez daukagu denborarik galtzeko -esan zuen Naiak.

Eta lagunak beraien bidean jarraitu zuten. Ordu erdi bat geroago, beste sobre bat erori zen zerutik.

- Aizue begira! Beste sobre bat! -esan zuen Deianek
- Hau nik irakurriko dut. -esan zuen Deianek- Kaixo Deiane -Deiane irakurtzen hasi zen.
- Ai ama, niretzako da erronka! -esan zuen Deianek.
- Irakurtzen jarraituko dut -esan zuen Deianek- zure erronka baloiarekoin ehun bote egitea da.
- Lortuko duzu Deiane! -animatu zuten besteek.

Bat-batean, baloia erori zen, nola ez zerutik.

- Lortuko dut! -esan zuen Deianek- lagunak zuek kontatu nik egiten ditudan tokeak.
- Ados! -erantzun zien- 1,2,3,... -Deiane tokeak egiten hasi zen eta besteak kontatzen- 99 eta... 100! Deiane lortu duzu!

Beste sobre bat erori zen.

- Noa, hau zuk irakurri -esan zioten.
- Ados! Naia -Noa irakurtzen hasi zen- orain, igerilekuan, 500m tximeleta estiloan egin eharko dituzu.
- Hara! Eskerrak bainujantzia beti soinean dudan!

Naia igerilekura joan zen.

- Bat, bi eta piii! Animo Naia! Lortuko duzu!

5 minutuan bukatu zuen erronka.

- Naia! Lortu duzu!

Beste sobre bat erori zen eta hura Maddik irakurri zuen.

- Zorionak neskak! Erronka guztiak gainditu dituzue! Horko ate hortatik igarotzean lehen zeundeten tokira itzuliko zarete.
- Lortu dugu!

Lagunak atetik igaro eta liburu azokan zeuden berriz.

- Aizue! Atera gara!

Liburua apurtu egin zuten, inori gehiago ez pasatzeko bereiei gertatu zitzaiena.

Ezizena
ILOLOZU